

BIZKAITARROI DIÑOTSUET

Idazten ari nazan neori gipuzkoarra nozue. Zerbait adierazo gura deuntsuet. Zueri zuzentzeko, bizkaiera iduritzen jat egokiena.

"Batua" dala-ta, euskalkiak edo euskal-izkelgiak galduan urten dabela baiezta-tu gura neuke. Euskeraz, leitekena da zoritzarrez, ez da beste berbetakoa jazoten. Aietan izkelgiak, dialektuak, izkuntzaren des-itxurazpenak dozuz, aldaerak.

Nori bururaten jako, esate baterako, doixteraz, ingeleraz, "dialektu" dalakoan idaztea? Ez da arrunta. Ingalaterra'n egoizkera baldin ba'da ereduia, Almania'n, Doixterri'an, iparrekoa da berriz. An, dialektuan dala edo goi-izkuntzan dala, (estandar), bertako izkuntzan idazten dute beti.

Euskeran, ordea, dialektuak ez dira ogiaren papurrak; dialektuak euskeraren izaera dira, bizia, biotza. Orrela, DIALEKTUAN, IZKELGIAN EGITEN EZ BA'DA, OR EZ DAGO BESTERIK. Dialektuak, euskeraz, ez dira izkuntzaren deforma-zioak, IZAERA bera baiño.

Batzuk zera diño: "Zergaitik ikasi bear dogu bizkaieraz?", ta beste batzuek: "Ori ez da euskera"...

"Batua" ostera, batzuen "batua" maitea, bai, "batu" dalako ori, berez, bakar batzuen "batua" da, ez danona, ezta gutxiago ere. NOREN eta NONGO izkera ta ama-izkuntza dan jakin gura dot. Bizkaierak, "batu" orrek baiño eskubide gelago dituala pentseutan dot.

Bizkaiera antziñak sortua dau, gizaldiz gizaldi; gaur goizeko "batua" berriz, "in" eta "ezkertiar" (etiketaz, ez ekintzaz, jakiña!) amorratu batzuen kutixi litzarre-roek sortu dabe.

Dirudianez, danerako bear da politika aberri ontan: jazteko, jateko, edateko, izkuntzarako... Oso ederra askorentzat, politikaz itzegitea, etiketak ipintea, sistema latza beartzea, baiña politikak egitera, oso jende gutxi oldartu, azarten da.

Nere ustez, IZKUNTZA BAT LARDASKATZEKO, EZ DU IÑOLAKO TOKIRIK, EZ ESKUBIDERIK IÑONGO POLITIKA-TALDEK EDO ALDERDIK! Erria da izkuntza egokitzeo eskubidea dauana.

Bizkai'ko zaar edo gazte, ez eizue zeuen miiña gal...! Lagun eiozue zeuen ele-ra geixoari!